

## 14. NAO - 2015ko urtarrilaren 22a

### 25. ORDENANTZA: ORDENANTZA FISKALA, UDALEKO GAZTERIARENDAKO BALIABIDEEN ZENTROAK ANTOLATZEN DITUEN IKASTARO EDO JARDUERA SOZIOKULTURAL NAHIZ AISIALDIKOETARAKO SARRERA, IZEN EMATE EDO MATRIKULAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

#### Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatuari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean.

#### Kontzeptua

2. artikulua. Prezio publikoak galdatuko dira, Udaleko Gazteriarendako Baliabideen Zentroak urtean antolatzen dituen ikastaro edo jarduerak soziokultural nahiz aisialdikoetarakoetan parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duten sarrera, matrikula edo antzeko beste edozein kontzeptu dela eta, prezio publikoak aplikatzeko beste ordenantza batzuetan sartuta ez daudenean.

#### Kudeaketako eta diru-bilketako arauak

3. artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa ordainduko da izen-ematea edo matrikula egitean.

4. artikulua. Prezio publikoak ikastaroa edo jarduerak antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian ordainduko dira.

5. artikulua. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduerak egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Gainerakoetan, behin betiko inskripzioa eginda, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko.

#### Tarifak

6. artikulua. Aplikatu beharreko tarifek zerbitzuaren zuzeneko kostuaren %50 ordainduko dute gutienez; alegia, monitorearen edo zerbitzua ematen duen enpresaren kostua.

7. artikulua. Ordenantza honen eranskinean azaltzen diren tarifak aplikatuko dira, edo kasu bakoitzean Tokiko Gobernu Batzarrak ezartzen dituenak, betiere garatu behar den jarduerari egokituak, eta, hala bada, Balio erantsiaren gaineko zergaren kuota ere eramane du.

#### 2018KO TARIFEN ERANSKINA - 28. NAON ARGITARATUA 2018KO OTSAILAREN 8A

	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Prezio/ordua (ikastaroa)	1,70 euro	3,40 euro
Beti saiatuko da ikastaroek 20 ordu inguru iraun dezaten eta, betiere, orduen eta zenbatekoen batez bestekoa egiten da, ikastaroen edo tailerren iraupenaren arabera, aurreko taula kontuan hartuz.		

Erroldatu gabeak ikastaro eta tailerretan plaza librerik gelditzen bada baizik ez dira onartuko. Haientzat, ikastaro bakoitzaren prezioa erroldatuena halako bi izanen da, aurreko taularen arabera.

Behin betiko izen-ematea eginez gero, ez da ordaindutakoa itzuliko.

Izena emateko epea bukatuta, eskainitako ikastaroren batean plaza librerik gelditzen bada, matrikula berriak ematen ahalko dira, betiere ikastaro guztia ordaintzen badute.

Antolatzaileek ikastaro edo tailerren bat bertan behera utziz gero, kuotaren zenbatekoa itzuliko zaie izena emandako erabiltzaileei.

Halako ikastaro berariazkoak badira, ezaugarri bereziak biltzeagatik, 10 erabiltzaileri baino gehiagori batera ezin zaienean eman, ez dira tarifa hauen barrenean sartuko. Haientzako prezio/ordua, gutxienez, ikastaroaren kostuaren %50 izanen da.

Gizarte Zerbitzuen mendeko Gazteriarentzako Programak antolaturiko jardueren tasak erreferentziazko eredu honen arabera izanen dira:

JARDUERA:

- Osasuna sustatzeko jarduera berariazkoak (Joan-etorri zerbitzua kenduta).

Dohainik

- Baliabide propioekin egiten diren jarduerak eta kostu erantsirik ez dutenak (maketen aurkezpena...) edo gauzatzeko material txikia erostea behar dutenak (eskola laguntza, Topalekuaren tailerrak...).

Dohainik

- Elkarte edo talde egituratuak sustaturiko jarduerak (Break, BMX, Grafiti, Saca Puntas).

Dohainik

- Udalak antolaturiko txapelketak eta lehiaketak (Tratu onaren aldeko argazki lehiaketa...).

Dohainik

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak proposatutako pertsona kaltebera edo arrisku handikoentzako prebentzio jarduerak hautazkoak, izen-emate irekiak onartzen badira ere talde normalizatuak osatzeko.

Dohainik edo kuota sinbolikoak (2,00-5,00 euro)

- Talde naturalek proposaturiko jarduerak, gastu handirik ekartzen ez dutenak (Magic, Futbito, Mahai-futbola, Ping pong...): haien gastuen %50 berdintzera jotzen duten kuotak, kostuaren %25era ailegatu behar bada ere jarduera gauzatu ahal izateko.

Jardueraren kostuaren arabera.

- Joan-etorria

4,00 euro

6,00 euro